



kritiken hemeroteka

6.716 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

« [Jakintza jostailu bihurtua](#) | [Nun zaude?](#) »

Azken kritikak

→ **Dorrearen eta penduluaren arteko ituna**
Amaia Iturbide
Iratxe Retolaza

→ **Abizen berriaren historia / Ihesi doana eta gelditzen dena**
Elena Ferrante
Alex Gurrutxaga

→ **Odolaren mintzoa**
Xalbador
Igor Estankona

→ **Sator lokatzak**
Jon Arretxe
Javier Rojo

→ **Odola / Gatza / Musua**
Irati Jimenez
Xiker Belamendia

→ **Poesia**
Patti Smith
Jose Luis Padron

→ **Bitakora kaiera**
Ibon Sarasola
German Esparza

→ **Bitakora kaiera**
Ibon Sarasola
Mikel Ayerbe

→ **Trilogia hiperlaburra**
Karlos Linazasoro
Hasier Rekondo

→ **Hitz Margotuak**
Karlos Aretxabaleta / Mikel

Sator lokatzak / Jon Arretxe / Erein, 2016

Bilbo marjinatua → Javier Rojo / *El Diario Vasco*, 2017-02-04

Jon Arretxek, bere azken nobelan, Toure ikertzailearen istorioen beste entrega bat eskaintzen du. "Sator lokatzak" izenburuarekin bataiatu du liburu hau, eta argumentuaren aldetik izenburu horrek gauza handirik argitzen ez badu ere, giroa behintzat nahiko ondo adierazita geratzen da izenbururako hautatu dituen hitzetan. Toure ezaguna da dagoeneko Arretxeren aurreko nobelak irakurri dituenarentzat. Afrikarra da jatorriz, eta Bilboko San Frantzisko auzoan bizi da, batzuetan ikertzaile pribatuaren papera betez. Bizirautea helburu duelarik, auzoko gertakari batzuk argitzen saiatzen da, diru apur baten edota mantenuaren truke. Bitartean, nahi gabe, behartuta dago inguru hartan zelatatzen dagoen ertzain baten aginduak betetzera, ertzain hau, Toure-ri buruzko sekretu baten jabe denez, afrikarraz baliatzen baita bere legea inposatzeko. Hauxe da planteamendu orokorra, eta testuinguru honetan auzoan zehar mugitzen diren pertsonaien gorabeheren lekukoa izango da irakurlea. Toure, alde batetik, lapurketa txiki bat argitzen saiatzen da, ikertzaile osperei dagokionez. Baina bere lagunekin batera beren bizitzak kontrolatzen eta erabiltzen ari den ertzain horren kateatik askatzeko ahaleginak egingo dituzte. Nobela beltzaren esparrukoa da liburu hau, eta intrigak garrantzi handia duelarik ez da komenigarria argumentuaren aldetik gauza gehiago esatea, spoilerrik egin ez dadin. Nobela nagusi den ikuspuntua eta bertako giroak inplikitzen duena, dena dela, aipatu daitezke. Aurreko nobeletan gertatzen denarekin konparatua Tourek eskaintzen duen ikuspuntuan aldaketa ikusgarria dagoela iruditu zait. Aurreko nobeletan pertsonaia honek harridura erakusten zuen, ulertezina begitantzen zitzaion munduaren aurrean. Honetan, ordea, eszeptizismoa nagusi da. Pertsonaia oso ondo ulertu du zein den bere lekua, eta horren arabera jokatzeko du. Giroari dagokionez, "besteen" bizitzak kontatzen direnez, marjinazio mundua da nagusi, Bilboko beste biztanleek ezagutzen ez duten mundu paraleloa. Aurreko nobeletan umorearen aztarnaren bat aurki liteke. Honetan, dagoeneko, ez. Izan ere, krudelegia da mundu paralelo hori.

Artxiboa

- Otsaila 2017
- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016
- Apirila 2016
- Martxoak 2016

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Argia (852)
- Berria (850)
- El Diario Vasco (808)
- El Correo (734)
- Gara (549)
- Egunkaria (505)
- Deia (358)

Manso
Igor Estankona

→ **Hamaika euskal literato eta Jainkoa**
Sebastian Gartzia Trujillo
Javier Rojo

→ **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Alex Gurrutxaga

→ **Urtemuga lehorren kronika**
Itxaro Borda
Aritz Galarraga

→ **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Ibon Egaña



→ El País (151)

→ Aizu! (143)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1407)